

Egin buruketak.

Idatzi laukietan buruketaren datuak, aukeratu eragiketa eta idatzi emaitza.

Koldok bost **5** puxika  zituen, bere amak, lanetik etorri denean, beste hiru **3** ekarri dizkio. Zenbat dauzka orain?

Hasieran zeukan	Amak ekarri			Orain dauka
				

Anek zortzi **8** puxtarri  zituen, baina kalera joan da jolastera eta lau **4** galdu. Zenbat dauzka orain?

Hasieran zeukan	Kalean galdu			Orain dauka
				

Autobus batean  hamar **10** pertsona doaz. Geltoki batean sei **6** igotzen dira. Zenbat doaz orain?

Hasieran doaz	Geltokian igo			Orain doaz
				

Jolastoki batean  bederatzi **9** ume daude, baina berandu da eta zazpi **7** etxera doaz. Zenbat gelditzen dira orain?

Hasieran zeuden	Etxera joan			Orain daude
				

